

Baiona
Maiatzaren 31n
2008ko edizioa

hitz *a* ditzza

Zuzen idaztea da giltza!

Amaia Hennebute

«*Diktaketen oroitzapenetan*»


Antolatzaileak:



EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA
INSTITUT CULTUREL BASQUE



Laguntzaileak



«Diktaketen oroitzapenetan»

Amaia Hennebutte

2

- Diktaketa, diktadoa, diktatua...: denak sinonimoak, haurtzaroko mamu beltz baten izendatzeko!

Alabaina, gehienetan, diktaketek oroitzapen txarrak berpizten dituzte. Aspaldiko kezkek, beldurrak, eta batzuetan ere larridurak, gure baitan berriro senditzen ditugu. Eta horiekin batera, eskolan maite ez genituen gauza guztiak gogoan ditugu.

Nik ez dut halako oroitzapen ilunik. Agian, ez bainintzen ikasle sobera txarra. Eskola ez nuen gorrotatzen.

«Diktaketen oroitzapenetan»

Amaia Hennebutte

3

Aitortu behar dizuet, gaur egun, andereñoa naizela. Eskolako mundua ez da beraz enetzat, beste anitzendako bezala, ezinikusia.

Diktaketaren oroitzapenak aztertzen ditudalarik, bi oroimen berezi gogoratzen zaizkit.

Lehenak, ikasle guzietan ezagutu eta bizitu dutena aipatzen du : nola egin kopiatzeko, ahal bezain tranpa onena eta ezkutuenaren asmatuz.

Latinezko diktaketa bat landu genuen. Latina arras zaila iduritzen zitzaigun. Ondorioz, lana errazteko, adiskideen artean bildu ginen, ea zer jukutria asmatuko genuen, elkar laguntzeko.

«Diktaketen oroitzapenetan»

Amaia Hennebutte

4

Bati burutapen nabarmena bururatu zitzaion : diktaketaren erranaldiak idazten zakienak aski zuen ezabagailuaren tapagailuan, papertxo bat esaldiekin kukutzea, eta lagunei botatzea.

Hastapenean, tranpa izugarri ontsa hasi zen. Bizpahiru lagun artean kurritu zuen tapagailuak: airez zihoan hegaldaka, lurrean herrestan, eta oin batek zapaturik, bidaia amaitzen zuen interesatuaren eskuen artean.

Baina tutula batek, gaizki begiztatuz, neregana aurtiki ordeztuz, andereñoaren bulego azpira bota zuen tapagailu famatu hau! Hor zegoen koska! Kopiatzeko aukerarik ez, eta latinezko diktaketa hura, zer porrota!

«Diktaketen oroitzapenetan»

Amaia Hennebutte

5

Bigarren oroimena bortitzagoa da.

Diktaketa bat genuen, frantsesez.

Onartu behar dugu, guk euskaldunok, zorte ona dugula diktaketetan, euskara hizkuntza fonetiko baina. Hizki bakoitzak beti hots bera du. Frantsesez aldiz, letra batek soinu desberdin anitz sortzen ahal ditu. Zer buruhaustek orduan!

Beraz frantses klasean ginen, eta diktaketa bat hasi genuen.

Usaian, arazo berezirik ez nuen, baina egun hartan, nork daki, burua arras arin nuen.

«Diktaketen oroitzapenetan»

Amaia Hennebutte

6

Ondoko auzoaren lana kopiatu nahian, lepoa lagunaren bizkar gainetik luzatu nuen, begiak ezker-eskuin okertu nituen, gainbegiradak botatuz, eta kopiatzen hasi nintzen... Baina bapatean, zart! Zaflako bat bildu nuen.

Frantseseko erakaslea buruz-buru nuen, haserre gorrian emana, begiak sutan, pozoina ahoan : zero eder bat ematen zidan.

Zartakoa gehi nota txarra, gehiegi iduritu zitzaidan! Zer zimikoa bihotzean!

Honezkero, erne izan zaitetze!

Dik-dik-ta-ta-ketak, zinezko abenturak sor baititzake!